

# GARRAIO GASTUAK AZTERGAI!



EUSKADIKO GAZTERIAREN  
KONTSEILUA  
2017ko OTSAILA



Euskadiko  
Gazteriaren  
Kontseilua

Consejo de  
la Juventud  
de Euskadi



# AURKIBIDEA

1 SARRERA	3. orria
2 TESTUINGURUA	4. orria
3 METODOLOGIA	6. orria
4 GAZTE ERABILTZAILAILEEN ANALISIA	7. orria
5 GARRAIO-GASTUEN ANALISIA	15. orria
6 HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK	19. orria
7 INTERESEKO INFORMAZIO OSAGARRIA: diru-laguntzak eta deskontuak.	20. orria

## Laguntzaileak:





## SARRERA

«Hezkuntza Foroa» lantaldea osatzen duten erakunde eta gazteei esker jaio da proiektu hau, ikasleen artean hautemandako beharrian eta proposamenei erantzuna emateko.

Asko izan dira abiapuntutzat hartutako galderak: zeintzuk dira urtebetean zehar izaten diren gastuak? Lurraldean arteko aldeak daude? Zeintzuk dira garraio-aukera bakoitzak dituen trabak?...

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko Hezkuntzako lan-arloak garraio-gastuen gaineko azterlana burutu du urtebetean gazteek haien ikasketak burutzeko zenbaterainoko gastuak dituzten jakiteko.

Galdetegi batean bildutako galdera sortarekin, erabiltzaileek partekatutako bizipenekin eta lantaldearekin izandako saioekin joan txosten hau sortzen eta forma hartzen joan da.

Datuak aztertzeaz gain, dauden laguntzak eta deskontuak identifikatu dira, gazteei informazio hori helarazi, eta haiei erraztasun handiagoak emateko.






# 2

## TESTUINGURUA

Lana kokatze aldera, Gazteen Euskal Behatokiak 2016ko irailean zehar Mugikortasunaren Europako Astearengatik argitaratutako datu hauexek<sup>1</sup> jaso ditugu. Euskadin bizi diren gazteek garraio publiko kolektiboa nola erabiltzen duten islatzen duten estatistikak jasotzen ditu azterlanak eta horiek interesgarriak eta garrantzitsuak iruditu zaizkigu txosten hau osatzeko.

Frecuencia de uso del transporte público colectivo por parte de la juventud de Euskadi de 15 a 29 años (%)



Fuente: Observatorio Vasco de la Juventud (avance de datos del informe "Juventud vasca 2016")

<sup>1</sup> 15 eta 29 urte bitarteko 1.500 gazteri (750 mutil, eta 750 neska) egindako inkesta batean oinarrituta daude datuak, hau da, gazteriaren talde adierazgarri bat islatzen dutela emaitzek.



Gazteen Euskal Behatokiaren txostenak jaso bezalaxe<sup>2</sup>, «15 eta 29 urte bitarteko euskal gazteen % 39,8k esan du garraio publiko kolektiboa erabiltzen duela (autobusa, tren, metroa, tranbia...), egunero edo ia egunero. 2012koa baino ehuneko handiagoa da hori (orduan % 37,2 izan zen)».

«Euskadiko Gazteak 2016» txosteneko datuen aurrerakinaren grafikoak islatzen du ehunekoa, % 50,8ra igotzen dela, baldin eta aipatutako kopuruari gehitzen badiogu garraio kolektiboa astean hiru edo lau aldiz erabiltzen duten gazteena. Beraz, datuek diote gazteen erdiek baino gehiagok erabili ohi dituztela lehenago aipatutako garraiobideak.

Gazteak bizitokia oinarri bezala hartuta, alde handia dago: Bizkaian garraio publiko kolektiboa egunero erabiltzen duten gazteen kopuru handiena dago (% 46,3); Gipuzkoa da bigarrena (% 37,4); eta, azken tokian, Araba dago (% 23,1). Handia da Bizkaia beste bi lurraldeekin duen aldea; baliteke metroak zerikusirik izatea horretan. Bestalde, Araban azpimarratu egiten da bizikleta asko erabiltzen dela garraio publiko gisa.



<sup>2</sup> Euskadiko Gazteak 2016» txosteneko datuen aurrerapenaren argitalpena, <http://bit.ly/2kdoh18>.



# 3

## METODOLOGIA

**Txosten hau egiteko prozesua lau fasetan banatu da:**

• **Arazoaren identifikazioa**

Asko dira lurralde batean bizi, eta beste batean ikasten duten gazteak. Eguneroko errealitatea da lurralde batetik bestera mugitzen diren ikasleena. Hori dela eta, «Hezkuntza Foroa» lantaldeak hipotesi baten gainean egin du lan: gazteen bizilekuak eragina du garraioan izandako gastuetan.

• **Gazte erabiltzaileen analisia**


Analisi hau oinarritzeko, gazte erabiltzaileen bizipenak jasotzeko galdetegia egin zen. Eguneroko bizipen eta arazoez gain, hobetzeko proposamenak egiteko aukera nabarmendu da.

• **Urtebetean izandako garraio-gastuen analisia**

Lantaldearen hipotesia egiaztatzeko, garraio kolektiboen ohiko tarifak eta prezioak aztertu dira. Tarifen eta ibilbideen arteko konparazioa egiteko, berriz, lurralde historiko bakoitzeko hiriburuak hartu dira abiapuntutzat.

• **Ondorioak eta hobekuntzarako proposamenak**

EGKren proiektu guztietan bezalaxe, helburua ondorioak aztertzea eta hobetzeko proposamenak egitea da. Gazteengandik jasotako informazioan oinarrituta dago proposamen horietako bakoitza. Erakundeetara eramango dira, politika publikoetan eragiteko helburuz.





# 4

## GAZTE ERABILTZAILEEN ANALISIA

Analisi kualitatiboa egin da galdeketa baten bidez, garraio publiko kolektiboa erabiltzen duten gazteengandik zuzeneko informazioa jaso ahal izateko.

- Adina
- Sexua
- Non bizi zara?
- Non ikasten duzu?
- Zer motatako garraioa erabiltzen duzu unibertsitatera edo ikastetxera joateko?
- Zure ustez, egokiak al dira eskainitako ordutegiak? Zergatik?
- Garraioaren gastuei dagokienez, pozik al zaude dagoen eskaintzarekin?
- Iradokizunetako bat zera izan da: Euskadin zehar bidaiatu ahal izateko txartel bateratua sortzea. Ados al zaude horrekin?
- Zer gustatuko litzaizuke guk azpimarratzea, egingo dugun txostenean? Zein da, zuretzat, atalik interesgarriena?
- Hobetzeko proposamenei dagokienez, berriz, zer gaineratuko zenuke? (nahi duzuna idatzi ahal duzu)
- Zure egunerokotasunari buruzko proposamen edo bizipenik baduzu garraioari lotuta, eta hura partekatu nahi baduzu, idatzi hemen. Eskerrik asko.
- Egindako proposamen guztiak biltzen dituen txostena jaso nahi baduzu, utzi zure helbide elektronikoa, eta bidali egingo dizugu.

3 astean zehar zabalkundea egin eta gero, inkesta itxi eta lortutako erantzunen kudeaketa- eta analisi-lanak hasi ziren.

Jarraian, jasotako informazioaren analisia, galdetegia egituratzen duten galderak aipatuta eta datu eta proposamen esanguratsuenak nabarmenduta:



### Datu orokorrak:


Guztira, 102 erantzun lortu dira gazteengandik: % 76 neskenak dira, eta % 24, berriz, mutilenak. Adinari dagokionez, % 46,1, 16 eta 18 urtekoa da; % 40,2, 19 eta 24 urte bitartean dago; eta % 13,7, berriz, 25 eta 30 urte artekoa da.

Galdetutakoen jatorriari dagokionean, hona hemen emaitzak: % 7,8, Araban bizi da; % 72,5, Bizkaian; eta % 19,6, Gipuzkoan. Galdetutakoek non ikasten duten aintzat hartuta: % 7,8k, Araban ikasten du; % 82,4k, Bizkaian; eta % 9,8k, Gipuzkoan.

*\* Bat egiten dute Araban jaiotakoek eta ikasketak bertan egiten dituztenen ehunekoak (% 7,8), baina egiaztatu da Arabaren kasuan ere, lurralde arteko bidaiak badaudela. Hala ere, Bizkaia-Araba arteko, eta Gipuzkoa-Araba arteko mugikortasunari dagozkie kasu gehienak.*

### Zein garraio mota erabiltzen duzu unibertsitatera edo zure ikastetxera joateko?

Galdetutakoek arteko % 72k esan du autobusa erabiltzen duela unibertsitatera edo ikastetxera heltzeko. Boto gehien jaso duen bigarrena, metroa izan da: % 10ek erabiltzen du. (Bizkaiko lurraldeari dagokio datu hori). Hirugarren aukera, oinez joatea: % 7k esan du oinez doala ikastetxera edo unibertsitatera. Azkenik, % 6k esan du ibilgailua erabiltzen duela batetik bestera joateko.







### Zure ustez, egokiak al dira eskainitako ordutegiak? Zergatik?

Jasotako erantzun guztien artetik, % 32,93k esan du ordutegi-eskaintza egokia iruditzen zaiola. Jasotako iritzien artean nabarmendu egiten dira haien beharrianetara egokitzen direla diotenak, hiri-ibilbideak direla eta garraioen maiztasuna egokia dela.

*“Nik metroa erabiltzen dut, eta ez daukat inolako kexarik, ordutegiari dagokionez”.*

*“Egokiak dira: 15 minuturik behin daukat campusera joateko autobusa”.*

*“Bai: hiri-ibilbideak dira eta 15 minuturik behin dator tranbia”.*

Erantzun batzuetan, aldiz, ñabardurak egon dira: % 3,66k adierazi du ordutegiak egokiak direla bere egoera pertsonalerako, baina bestelako errealitate batzuk ere ezagutzen dituela.

*“Eskola-egutegi barruan, bai. Erabili ohi dudan linea ordu erdiko maiztasuna du, eta egoki deritzot. Eskola-egutegitik kanpo, berriz, linea desagertu egiten da, eta beste bat erabili behar izaten dut: ibilbidea luzeagoa da, eta, gainera, orduro egoten da zerbitzua. Hori ez da aski, argi eta garbi: unibertsitatean badago eskola-egutegitik kanpo lan egiten duen jendea (ikertzaileak, esaterako)”.*

*“Bai, baina sarriago egon beharko lukete gune desberdinetara joateko autobusak”.*

% 63,41ek, berriz, kontrako iritzia eman ditu, adierazi du ordutegiak ez datozela bat bere beharrianekin. Loturak egokiak ez direla diotenak azpimarra daitezke, maiztasuna txikia dela eta puntako orduetan ez dagoela errefortzurik linea jendetsuetan.

*“Ez, ez dira aski. Gainera, lotura txarra da eta, ondorioz, unibertsitatera nola heldu asmatzen ibili behar izaten dugu”.*

*“Ez. Ordu-tarte batzuetan oso txikia da autobusen maiztasuna, eta, horren eraginez, batzuetan ordubetez egon behar dut zain, ikastetxetik etxera bueltatzeko autobusa hartzeko”.*

*“Ez. Orduan behin baino ez dago, eta, ordu jakin batzuetan, ez dago. Sarriago egon beharko lukete, hori baita ikasle gehien-gehienek erabiltzen duten garraiobidea”.*

*“Ez. Maiztasuna txikia da, eta ez datoz bat klase-ordutegiekin”.*

*“Ez. Nire herritik autobus bakarra daukat unibertsitatera joateko, eta bakarra bueltatzeko. Hori dela eta, txartel bi ordaindu behar ditut, eta autobus bi edo, bestela, tren eta autobusa hartu”.*



“Ez. Klasera ozta-ozta heltzen gara beti. Unibertsitatara doazen autobusak bost gutxiagotan / eta hogeita bostean heldu beharko lirateke, ez puntuan / eta erdietan. Irakasle askok ez digute uzten klasera sartzen, minutu batzuk berandu heltzen bagara. 15:00etan askoz autobus gehiago irten beharko lirateke unibertsitatetik Billbora. Ez gara sartzen autobusetan. Edukiera gainditu egiten dugu. Ez da normala bidaiari batzuk gidariarengandik cm batzuetara jarri behar izatea, tokirik ez dagoelako. Amiskutsua da, eta bizitza asko daude jokoan”.

“Ez. Unibertsitatara igotzeko autobusen maiztasuna txikia da, eta, sarri, ez daude zain daudenentzako beste autobus: jendea geratzen da kanpoan, igo barik, edo, bestela, denak igotzen badira, oso baldintza txarretan egiten dute bidaia”.

### **Garraioaren gastuei dagokienez, pozik al zaude dagoen eskaintzarekin?**

% 17,65ek uste du egokiak direla erabiltzen duten garraioaren gastuak. Gehienek, erabiltzen dituzten bonuak eta deskontuak aipatu dituzte.

“Bai, baina gustatuko litzaidake aukera egotea autobuserako hileko edo urteko txartelak erosteko. Erosoagoa izango litzateke, eta apur bat errentagarriagoa”.

“Eskaintza ona iruditzen zait”.

“Txartel bi ordaindu behar ditudala aparte utzita (bakarrekin ezin dudalako klasera heldu), pozik nago, bai”.

Gainerako erantzunek, % 82,35ek, esan du tarifak ez direla egokiak. Dauden eskaintzak ez dira guztiz egokiak: ez daude ikasleentzako berariazko deskontuak; gazteentzako bonuak ez dira heltzen 30 urteko adinera; eta ez dute aintzat hartzen gazte gehienek ez daukatela berezko diru-sarrerarik.

“26 urte bete ditut eta, jada, ezin dut metrorako urteko bonua izan. 30 urte baino gutxiago ditut oraindik, eta uste dut gazteok garela garraio publikoa gehien erabiltzen dugunok. Nire ustez, 30 urteko adinera arte luzatu beharko litzateke deskontu hori: badaude adin horretara arte luzatutako beste deskontu asko”.

“Ez, ez nago pozik. Oso garestia da... Ikasleak gara, eta ezin dugu hainbeste diru gastatu garraioan”.

“Aukera berdina egon beharko lirateke tranbian eta autobusean, baina autobuseko tarifak hobeak dira gazteentzat”.

“Ez. Prezioa gehiegizkoa iruditzen zait. Horrez gain, zerbitzuak gero eta garestiagoak dira, eta kalitatea gero eta txikiagoa da”.

“Autobuserako eta metrorako urteko bonua egon liteke, beste hiri batzuetan dagoen bezalaxe”.



“Ez, ez nago batere pozik. Nire ustez, prezioa gehiegizkoa da: ikasleak gara, eta gure baliabide ekonomikoak urriak dira. Eskatzen dut gazteentzako bonua egiteko, beste autonomia-erkiidego batzuetan daukaten bezalakoxea. 26 urtetik beherako gazteentzako izango litzateke, eta autobuserako zein metrorako hileko bonua eskuratzeko aukera emango luke”.

“Metroa nahiko garestia da. Urteko bonuak 200 eurotik gorako prezioa du: hori ez dago mundu guztiaren esku, eta laguntza handirik ere ez dute ematen. Busaren kasuan, urteko txartelerako aukerarik ere ez dago”.

“Ez nago pozik: ikaslea naiz, ez daukat diru-sarrerarik eta, hala ere, diru asko gastatzen dut garraioan. Ideia paregabea litzateke ikasle-tarifa bat abiaraztea”.

**Zure egunerokotasunari buruzko proposamen edo bizipenik baduzu garraioari lotuta, eta hura partekatu nahi baduzu, idatzi hemen. Eskerrik asko.**

Egindako azken galdetegietan garrantzia eman diegu bizipenei, horietatik lortutako informazio gehigarria erabiltzaile guztientzat delako onuragarria, eta aurreko puntuetan jasotako proposamenak indartzen dituztelako.

“Goizeko lehen orduetan arazoak egoten dira Leioako campusera heltzeko. Bost urte igaro dira, eta hortxe dirau arazoak. Itxura batean, Bizkaibusek ez dauka konponbidea bilatzeko asmonik. Kontua da goizeko 08:00ak eta 09:00ak bitartean (Bilbo-Leioa ibilbidean) ez dagoela tokirik erabiltzaile guztientzako. Autobusek, ondorioz, baimendutako edukiera gaindituta egin ohi dute bidaia. Administrazioiek zerbait egin beharko lukete, egoera horren aurrean”.

“Atzerapausoa iruditzen zait garraibidetik irteterakoan Barika pasatu behar izatea; Europako inongo hiriburutan ez dute hala egiten”.

“Goizez (08:00-09:00), autobus gehiago egon beharko lirakeke Termibus-UPV/EHU ibilbidea egiten. Autobusa jendez gainezka joaten da beti”.

“Garraibide mota bi erabiltzen ditut egunero unibertsitatera heltzeko, eta bi txartel pagatzen ditut. Gainera, garraibidez aldatu behar dut. Mesedez, jarri Lezamatik Leioako UPV/EHURA zuzenean doan autobusa”.

“Urtekoa autobuserako”.

“Trena eta autobusa hartu behar ditut unibertsitatera heltzeko; ez daukat klasera joan ahal izateko autobus zuzenik, baina, beste herri batzuetan, badago horrelakorik”.

“Edozein lineatarra aldatu ahal izatea”.

“Autobus gehiago eta maiztasun handiagoa. Ez da gizalegezkoa estu-estu joan behar izatea egun batean bai, eta hurrengoan ere bai. Asko ordaintzen dugu, kalitate txikiaren trukean”.



“Madrileko Autonomia Erkidegoan ikasleentzako hileko bonua daukate, hogeï euro inguruko prezioan. Bonu horrek aukera ematen die autobusez zein metroz bidaiatzeko. Aldiz, Euskadin, bi guntetan zehar bidaiatu ahal izateko ikasleon hileko bonuak 34 € balio du; horri gehitu behar zaizkio metroz edo trenez egindako bidaiak. Aintzat hartuta ikasle gehienon ekonomia ez dela oso oparoa, eskatuko nuke lehen aipatutakoa bezalako bonua sortzeko”.

“Autoa erabiltzen dut, maiztasunak ez direlako egokiak”.

“Autobus bakarra dagoenez, tokirik gabe geratzen gara sarri askotan. Hurrengoaren zain egon behar izaten dugu, eta berandu heltzen gara klasera”.

### Hobetzeko proposamenei dagokienez, berriz, zer gaineratuko zenuke?

“Garraio-txartel bateratua. Prezio txikiagoak langabetuentzat eta ikasleentzat”.

“Txartela Autonomia Erkidego guztirako izan dadila, eta euskal lurralde osoan birkargatzeko aukera egon dadila. Ez daitezela hain itxiak izan: gazte batek bere gain har dezakeen prezioa izan dezala garraioak, ez botere publikoek azpiegiturarekin sortutako zorraren arabera. Gogoan izan linea eta ibilbide asko amortizatuta daudela jada, urteen poderioz. Prezioak doitu beharra dago, eta gazteei eskaintzak egin”.

“Deskontu handiagoak garraio publikoa maizago erabiltzen dutenentzat”.

“Deskontu handiagoak familia ugarietako ikasleentzat. Urtekoa autobuserako”.

“Ikasle-txartel berezia izatea: Leioako unibertsitatetik Bilboraino joateagatik prezioa gehiegizkoa da”.

“Geltoki batzuetan autobus gehiago jami behar dira, zain egoten diren guztiak ez direlako sartzen. Nire ustez, ez da normala 20 pertsona baino gehiago joatea zutunik, autobuseko edukiera gaindituta. Eta, berriro diot: baimendutakoak baino 35 lagun gehiago joan ohi dira”.

“Euskal Herrian zehar bidaiatu ahal izateko gazte-txartel bateratua. Madrilen, hilean 20 € ordainduta, metroa, busa eta Guadalajararaino doan trena erabili ahal dituzte”.

“Maiztasun handiagoa garraioetan eta ordutegietan, eta erabiltzaileen arabera prezioak”.

“Ez da egokia Araban Mugi eta Barik balio izatea eta, aldiz, Bizkaian edo Gipuzkoan ezin BAT erabiltzea. Euskal Herri osorako txartel bateratua egon beharko litzateke, edo, bestela, hiru txartelek funtzionatu beharko lukete hiru lurraldeetan”.

“Urutien egon, edo txikiak diren udalerrietara hurbiltzen diren autobus-lineak sustatzea, ez bakarrik hiriburu nagusietara doazenak. Mikrobusekin, adibidez, herri txikienetan bizi direnei aukera eman ahal zaie herri handiagotara hurbiltzeko”.

## GARRAIO GASTUAK AZTERGAI!



*“Sor dezatela gazte-bonua, metroan zein autobusean erabili ahal izateko”.*

*“Proposamen bakarra: ikasleentzako eskaintza malguagoak egitea. Itogarria da hilean horrenbesteko dirutza uztea garraio publikoan”.*

*“Txartel bateratua garraio guztietarako, Espainiako autonomia-erkidego askotan daukaten bezalaxe”.*

*“Euskadiko garraio publiko guztietan (Euskotren, autobusa, tranbia, Metro Bilbao, Bizkaibus, Renfe Aldiriak) bidaiatzeko aukera ematen duen gazte-txartela/tarifa, probintzia barruko joan-etorrietarako. Horrelakoxeak dira Bartzelonako “T-Jove” izenekoa, eta Madriliko Autonomia Erkidegoko “Abono Transportes” delakoa”.*

*“Autobus gehiago jarri beharko litzukete, nire ustez: ordu erdian behin, esaterako. Bestela, gutako batzuk ia-ia ordubate egon behar izaten dugu zain”.*

*“Benetan beharrezkoak diren zerbitzuak areagotzea; horrela eginez gero, segurtasun-neurriak bete, eta autobusen edukiera errespetatuko litzateke. Kostuak merkeagotzea, edota ikasleentzako deskontuak abiaraztea (ez bakarrik hemengo jendearentzat)”.*

### **Sortuko dugun txostenean, zer gustatuko litzazuke nabarmentzea? Zer atal da interesgarriena, zure ustez?**

Txostenaren hiru atal nabarmendu ditugu galdetegian, jakiteko horietatik zein zen interes handiena pizten zuena elkarrizketatuen artean. Hona hemen hautatutakoak, eta horiei dagozkien ehunekoak:

- Administrazioei zuzendutako hobekuntza-proposamenak (% 40,6)
- Dauden deskontuak eta diru-laguntzak (% 31,7)
- Aurreikusitako garraio-gastuak, pertsonako eta urteko (% 24,8)
- Beste aukera batzuk (% 3)

Azpitarratu behar da gazteek agertutako interesa: jakin nahi izan dute txostenak hobekuntzarako zein proposamen jasotzen dituen. Pertsona batentzako aurreikusitako gastuak, diru-laguntzak edota indarreko deskontuak alde batera utzita, interes handia agertu dute jakiteko ea aintzat hartuak izango diren analisi honetan jasotako ekarpenetan adierazitako neurriak.


### **Euskadin zehar bidaiatzeko TXARTEL BAKARRA izatea da ekarpenetariko bat. Ados zaude?**

Hezkuntza Foroa lantaldean jasotako proposamenen artean, Euskadiko garraio publiko guztiak bateratzeko txartel bakarra sortzekoa izan da sarrien agertu

## GARRAIO GASTUAK AZTERGAI









denetako bat. % 77,2 oso ados dago neurri horrekin; eta % 18,8 ados dago. Galdeketa egin dutenen iritziek islatzen dute garraio-txartel bateratuaren gaia askotan errepikatu dela. Ehuneko guztiak bateratuz gero, galdetutakoen % 96 txartel horren alde dago, eta % 4 besterik ez kontra.



Proposamen hori, bestalde, alderdi politiko nagusiek Eusko Legebiltzarrerako 2016ko hauteskundeetan mahaigaineratutakoaren ildo beretik doa. Gazteentzat interesgarriak izan zitezkeen kontuak jasotzen EGK-k egindako «#125Sko taulak: hauteskunde-programen laburpena izeneko dokumentuak, eta, bertan, argi eta garbi ikusten da lehenago aipatutakoa. Horrek, beraz, berretsi egiten du gazteek egindako eskaera:

## GARRAIOA

					
Tarjeta de transporte única	Tarjeta de transporte única. Con descuentos para jóvenes hasta los 25	Tarjeta de transporte única		Tarjeta de transporte única	Tarjeta de transporte única
				Líneas de autobuses especiales para acercarse a las fiestas de los pueblos en verano	



# 5

## GARRAIO-GASTUEN ANALISIA:

Txosten honen helburuetako bat zen kalkulatzea ea zer gastu eragiten dizkion pertsona bati ikastetxera edo unibertsitatera joateak, eta aztertzea ea lurraldeen artean alderik ba ote zegoen.

Gastuak aztertzen hasi aurretik, azpimarratu nahi dugu egindako simulazio hau hurbilketa bat besterik ez dela, bai lurralde arteko bidaiei dagokienez, bai lurralde barrukoei dagokienez. Xedea da analisi-prozesu honetan zehar jasotako diskurtso-rako oinarriak ematea. Asko dira konbinazioak, eta ezinezkoa da horiek guztiek nahi bezain xehe eta zehatz jasotzea.


### Zenbat diru gastatzen dute EAEko ikasleek, urtebetean zehar?

Dagozkion mugikortasun-estimazioak egiteko, honako datu hauek hartu dira kontuan bai lurralde arteko ibilbideetarako eta baita lurralde barrukoetarako ere):

**\*Ibilbidea:** lurralde historiko bakoitzeko hiriburuen arteko joan-etorriak.

**\*Iraupena:** ikasturtea (irailetik ekainera), hilean 20 egun (hil bakoitzean dauden klase-egunekin batez bestekoa eginda).

Lehen atal honetan, lurralde bakoitzeko garraio publikoak aztertu dira. Garraio bakoitzaren prezioak jasotzen dituzte taulek, guneen arabera prezioa aldatu egiten delako (1, 2, 3...).



# GARRAIO GASTUAK AZTERGAI



Hona hemen jasotako kasuistika:

## BIZKAIA:

Garraioa	€ IBILBIDEA	€ JOAN-ETORRIA	€ HILABETEA	IKASTURTEA
Metro			29€ 34€ 39€ (26 urtetik beherakoentzako hileko bonua)	225€ 260€ 300€ (26 urtetik beherakoentzako hileko bonua)
			35,30€ 42€ 47,80€ (26 urtetik gorakoentzako hileko bonua)	353€ 420€ 478€ (Urteko gastua. Ez dago urteko bonurik 26 urtetik gorakoentzat)
Bizkaibus	0,725€ 0,85€ 0,975€ 1,3€ 1,75€	1,45€ 1,70€ 1,95€ 2,6€ 3,5€	29€ 34€ 39€ 52€ 70€ (Gazte Bizkaibus: 26 urtetik beherakoentzako hileko bonua)	290€ 340€ 390€ 520€ 700€ (Urteko gastua. Ez dago urteko bonurik 26 urtetik gorakoentzat)
	0,98€ 1,13€ 1,38€ 1,78€ 2,43€	1,96€ 2,26€ 2,76€ 3,56€ 4,86€	39,20€ 45,20€ 55,20€ 71,20€ 97,2€	392€ 452€ 552€ 712€ 972€
Euskotren	0,93€ 1,24€ 1,29€ 1,49€ 1,89€ (Barik, BAT, Mugi)	1,86€ 2,48€ 2,58€ 2,98€ 3,78€ (Barik, BAT, Mugi)	37,2€ 49,96€ 51,6€ 59,6€ 75,6€ (hileko gastua)	372€ 499,6€ 516€ 596€ 756€ (urteko gastua)
			23€ 28,5€ 34,50€ 44€ 52€ (26 urtetik beherakoentzako 30D gaztea)	230€ 285€ 345€ 440€ 520€ (Urteko gastua, 26 urtetik beherakoentzako 30D gaztearekin)
			30€ 36,5€ 44€ 56€ 66€ (26 urtetik gorakoentzako hilekoa)	300€ 365€ 440€ 560€ 660€ (26 urtetik gorakoentzako urteko gastua)
Renfe /Feve	1,06€ 1,41€ 1,56€ 1,92€ 2,46€ (Barik txartela)	2,12€ 2,82€ 3,12€ 3,84€ 4,92€ (Barik txartela)	42,4€ 56,4€ 62,4€ 76,8€ 98,4€ (Barik txartela)	424€ 564€ 624€ 768€ 984€ (Barik txartela)
			32,40€ 35,20€ 39,60€ 57,10€ 67,55€ (hileko bonua: egunean bidaia bi, hilabeteetan zehar)	324€ 352€ 396€ 571€ 675,5€ (urteko gastua, hileko bonuarekin)



## GARRAIO GASTUAK AZTERGAI



Renfe /Feve			49,10€ 53,30€ 55,65€ 65,30€ 74,40€ (hilekoa, nahi beste bidaia)	491€ 533€ 556,5€ 653€ 744€ (urteko gastua, nahi beste bidaiatako hileko bonuarekin)
Bilbobus			29€ (26 urtetik beherakoentzako nahi beste bidaiatako hilekoa)	290€ (urteko gastua)
	0,64€	1,28€	25,60€	256€
Tranvia Bilbao	0,38€	0,76€	15,20€	152€

### GIPUZKOA:

Garraioa	€ IBILBIDEA	€ JOAN-ETORRIA	€ HILABETEKA	IKASTURTEKA
Dbus	0,93 €	1,86€/	33,4€	334€
Lurraldebus	0,93€	1,86€		334€
	1,35€	2,7€	33,4€	486€
	2,56€	5,12€	48,6€	922€
	3,77€	7,54€	92,2€	1356€
	4,90€	9,8€	135,6€	1764€
	6,60€	13,20€	176,4€	2376€
		(20 bidaiatik gora, % 56ko deskontua egiten da tarifa arruntaren gainean)	237,6€	
Euskotren	0,82€	1,64€	32,8€	328€
	1,19€	2,38€	47,6€	476€
	2,25€	4,5€	90€	900€
	3,32€	6,64€	132,8€	1328€
	(Mugi gaztea)	(Mugi gaztea)	(Mugi gaztea)	(Mugi gaztea)
	0,93€	1,86€	33,4€	334€
	1,35€	2,7€	48,6€	486€
	2,56€	5,12€	92,2€	922€
	3,77€	7,54€	135,6€	1356€
	(Mugi, BAT, Barik)	(Mugi, BAT, Barik)	(Mugi, BAT, Barik)	(Mugi, BAT, Barik)

### ARABA:

Garraioa	€ IBILBIDEA	€ JOAN-ETORRIA	€ HILABETEKA	IKASTURTEKA
Tuvisa			25,50€ (26 urtetik beherakoentzako 30D gaztea)	255€ (urteko gastua)
Lurraldebus Tranbia			25,50€ (26 urtetik beherakoentzako 30D gaztea)	255€ (urteko gastua)
			30€ (abono mensual)	300€ (hileko bonua)
Euskotren Alavabus	0,96€			384€
	1,28€	1,92€	38,4€	512€
	2,04€	2,56€	51,2€	816€
	3,16€	4,08€	81,6€	1264€
	4,72€	6,32€	126,4€	1888€
	6,08€	9,44€	188,80€	2432€
	(Tarifa BAT txartelarekin)	12,16€	243,20€	

## GARRAIO GASTUAK AZTERGAI!



Bigarren atal honetan, analisi labur bat egiten da, lurralde historiko bakoitzeko hiriburuak oinarri hartuta, eta maiztasun eta erabilera handiena duten garraio kolektiboek (kasu honetan, La Unión eta Pesa) hiriburu horien artean egindako konbinazioak aintzat hartuta.

IBILBIDEA	Tarifa mota	€ IBILBIDEA	€ JOAN-ETORRIA	€ HILABETEA	IKASTURTEA
<b>BILBO-GASTEIZ/ GASTEIZ- BILBO</b> (La Unión)	Tarifa arrunta	30€ (hileko bonua)	25,50€ (26 urtetik beherakoentzako 30D gaztea)	255€ (urteko gastua)	255€ (urteko gastua)
	Bidaide bonua (30 urtera arte)			119,73€ (hileko bonua)	1047,61€ (urteko bonua)
<b>BILBO- DONOSTI/ DONOSTI- BILBO</b> (Pesa)	Tarifa arrunta	12€	24€	480€	4800€
	Mugi txartela (txartelaren zenbatekoa: 5 €)	6,60€	13,20€	237,6€	2376€
<b>GASTEIZ- DONOSTI/ DONOSTI- GASTEIZ</b> (Pesa)	Tarifa arrunta	12€	24€	480€	4800€
	Mugi txartela (txartelaren zenbatekoa: 5 €)	6,60€	13,20€	237,6€	2376€

*Taula honek, hiriburuaren arteko ibilbideen garraio-kostuak baino ez ditu jasotzen. Hiriburura beste edozein garraiobidetan hurbildu behar dutenek, gastu horiek gehitu behar dituzte, gastu erreala lortzeko.*





# 6

## HOBEKUNTZARAKO PROPOSAMENAK

EGKn uste dugu administrazio publikoek lan egin behar dutela garraio publikoko zerbitzuaren baldintzak hobetzeko. Gazteen laguntzari esker txostenean zehar deskribatutako egoerak eta analisiaren ondorioak abiapuntutzat hartuta, zera eskatzen dugu:

### GARRAIO-TXARTEL BAKARRA.

Asko dira ikasteko bidaiatu behar duten gazteak. Haien mugikortasuna errazteko, ezin hobea litzateke garraio-txartelak bateratzea. Askok, ezinbestekotzat jotzen dute halaxe egitea. Horretarako, baina, beharrezkoa da erakunde guztiak lankidetzan aritzea.



### UNIBERTSITATEETARA HETZEKO LOTURAK HOBETU.

Jasotako bizipen guztien artean, bereziki azpimarratzen dira udalerrri txikien eta unibertsitateen artean dauden lotura txarrak. Ikastetxeetarako ibilbideetarako ere, maiztasunak areagotzea eskatzen da, denbora gutxiago egon behar izateko zain.



### GARRAIO PUBLIKOKO ZERBITZUEN EGOERAK HOBETZEA.

Zerbitzuak berrikusi beharra dago, batzuetan jendez gainezka egoten dira eta. Horrekin batera, lerro batzuek egin behar izaten duten ahalegina baloratu beharra dago: puntako orduetan, batzuek ezin dute garraioa erabili.





### PREZIO BEREZIAK GAZTE ETA IKASLEENTZAT.

Hobetzeko proposamenen artean, gazteentzako tarifa bereziak eskatu dituzte. Deskontuetarako adinari dagokionez, berriz, adin-tartea 30 urtera arte zabaltzeko aldarrikatu dute.





### POLITIKA PUBLIKO PARTE-HARTZAILEAK.

Gazteentzako politikak gazteen laguntzarekin sortu beharko lituzkete. EGKn ere halaxe uste dugu. Hori dela eta, garraioaren alorrean (eta gazteen intereseokak diren beste gai batzuetan ere bai), parte hartzeko neurriak susta ditzatela proposatzen ditugu, herritarren iritzia jaso, eta, bide horretatik, errealitatearen analisisian oinarrituta dauden, eta arazo zehatzei erantzuna emango dieten politikak eraikitzeko.



### GARRAIO PUBLIKOAREN ERABILPENA SUSTATZEKO POLITIKAK.

Bereziki garrantzitsua da herritarrei kontzientzia harraztea, garraibide publikoak dakartzan onurei buruz. Horretarako, ezinbestean, zerbitzu askok dituzten gabeziak konpondu behar dira.





# 7

## INTERESEKO INFORMAZIO OSAGARRIA:

### Diru-laguntzak:

#### • Arabako Foru Aldundia:

*“2015/2016 ikasturtean unibertsitate-ikasketak egin, eta bizi diren udalerritik beste udalerrira batera joan behar duten gazte ikasle arabarrei diru-laguntzak emateko deialdia”*

2015/2016 deialdia: <http://bit.ly/2jQErD2>

Onuradunak: Araban 2015eko abenduaren 31ko datuz erroldaturiko 30 urteko gazteak edo gazteagoak, baldin eta matrikulatuta badaude 2015/2016 ikasturteko deialdian sartzen diren ikasketetan, eta, gehienez ere, 150 km badaude ohiko etxebizitzaren eta ikastetxearen artean.

### Deskontuak:

Lurralde bakoitzean garraio-atariak daude, eta bertan ageri dira dauden garraio publikoko lineak, tarifak eta indarreko deskontuak.

#### BIZKAIA:

- Bizkaiko Garraio Partzuergoa:

<https://www.ctb.eus/es>

#### ARABA

- Arabako Garraio Ataria :

<http://www.araba.eus/alavabus/>

#### GIPUZKOA:

- Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaz:

<http://www.atgipuzkoa.eus/es/>

### Atari interesgarriak:

**MovEuskadi** - [www.moveuskadi.euskadi.eus](http://www.moveuskadi.euskadi.eus)

Euskal Autonomia Erkidegoko garraio publiko sarearen informazioa jasotzen



du atari honek. Oso baliagarria da ibilbideak planifikatzeko. Garraio-enpresetarako estekak ere eskaintzen ditu.

### Autoa partekatzea

«Autoa partekatu» proiektua, UPV/EHuren campusetako errektoreordetzen ekimenez jaio zen, unibertsitate-komunitatean autoaren erabilera arrazionalagoa sustatzeko xedez. Arabako, Bizkaiko edo Gipuzkoako edozein campusetara joateko ibilgailu pribatua partekatu nahi dutenei, hala egiteko aukera ematen die zerbitzu horrek.

<http://campusbizkaia.compartir.org/>  
<http://campusgipuzkoa.compartir.org/>  
<http://campusaraba.compartir.org/>



## GARRAIO GASTUAK AZTERGAI!





[www.egk.eus](http://www.egk.eus)

Ramiro de Maeztu 15, behea  
Gasteiz

Autonomia 44, behea  
Bilbo

Andia 11, 1.  
Donostia